

Boletín Oficial de Gipuzkoa**Número 206****Fecha 30-10-2002****Página 18744****7 ADMINISTRACION MUNICIPAL****AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA****Aprobación e información pública de los criterios de uniformidad, estética y funcionalidad en el cementerio municipal****AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA***Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 16 de octubre de 2002, acordó por unanimidad de sus asistentes, aprobar los siguientes criterios de uniformidad, estética y funcionalidad en el cementerio municipal de Azpeitia.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que cualquier ciudadano puedan presentar en el Registro de este Ayuntamiento (en horario de oficina), las reclamaciones y alegaciones que estimen oportunas, dirigidas al Ayuntamiento Pleno como órgano competente para su resolución.

En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

Enterramientos:

Para la cubierta del enterramiento por criterios de uniformidad estética y funcionalidad se ha decidido establecer unos criterios de diseño para la lápida:

La lápida será el único elemento sobre el enterramiento, quedando la sepultura cubierta con césped.

Dicha lápida podrá ser de cualquier material y diseño libre, limitándose su tamaño a una envolvente máxima de 90 cm. de alto, 50 cm. de ancho y 25 cm. de fondo.

No obstante, se aconseja utilizar la lápida rectangular de 90 x 50 x 8 cm. de piedra caliza.

Exhumaciones:

Se establece un periodo de 12 años desde el enterramiento hasta la exhumación de los

cadáveres.

Ornato:

En cada tumba podrá colocarse un solo tiesto. No obstante durante la época de la festividad de Todos los Santos podrán colocarse adornos varios.

Azpeitia, a 22 de octubre de 2002.—El Alcalde, Jose M.^a Bastida Arrieta.

(3373) (11402)

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**206. zenbakia****Data 2002-10-30****18744 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****AZPEITIKO UDALA****Udal hilerriko uniformetasun, estetika eta funtzionalitatearen irizpideak onartu eta jende aurrean erakustea.****AZPEITIKO UDALA***Iragarkia*

Azpeitiko Udalbatzak, 2002ko urriaren 16an egindako bilkuran, bertaratutakoek aho batez hartutako erabakiarekin, Azpeitiko udal-hilerrirako ondorengo berdintasun, itxura eta funtzionaltasun irizpideak onartu ditu.

Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hartu den erabakiaren eta horretarako eratu den espedientearen berri emango zaio jendeari eta 30 laneguneko epea izango du edozein herritarrek, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondorengo lehen lanegunetik hasita, egokiak iruditzen zaizkion alegazio edo erreklamazioak egiteko, Azpeitiko Udal honen Erregistroan (bulego ordutegian), Udalbatzari zuzenduak, organo hau baita hura erabakitzeko eskumena duena.

Epealdi honetan ez balitz inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko, ordura arte behin-behineko zen erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Hilobiratzeak:

Hilobiaren estalkirako, itxura-berdintasun eta funtzionaltasun irizpideak kontuan izanik, hiliarriaren diseinurako zenbait irizpide jartzea erabaki da:

Hilarria izango da hilobi gainean egongo den elementu bakarra eta hilobia belarrez estalia geratuko da.

Hilarri hori edozein materialekoa izan daiteke eta diseinu librekoa. Tamaina, berriz, 90 zm. altu x 50 zm. zabal eta 25 zm. lodikoa izango da gehienez.

Dena dela, kareharrizko 90 x 50 x 8 zentimetroko lapida errektangularra erabiltzea gomendatzen da.

Hilobitik ateratzea:

Lurperatzea egiten denetik gorpuak hilobitik ateratzen diren arte 12 urteko epea zehaztu da.

Apainketa:

Hilobi bakoitzean lore-ontzi bakarra jarri ahal izango da. Dena dela, Santu Guztien egunaren garaian apaingarri gehiago jarri ahal izango da.

Azpeitia, 2002ko urriaren 22a.—Jose M.^a Bastida Arrieta, Alkatea.

(3373) (11402)